

Euskal AEko emakumeen % 55,38 seguru sentitzen dira haien bizitegi-zonan bakarrik ibiltzean; gizonen kasuan, % 84,73 sentitzen dira seguru

Eustat hasi da kuantifikatzen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburu eta xedeak lortzeko bilakaera, lurralde historikoaren eta sexuaren mailetan

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko gizonen % 84,73 seguru sentitzen ziren, 2019an, haien bizitegi-zonan bakarrik ibiltzean; emakumeen kasuan, % 55,38 baino ez zen seguru sentitzen. Hori ondorioztatu da oraintsu [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforman](#) sartu diren datuetan.

Eustatek, orduan, gizarte-eragileen esku Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburu eta xedeak etengabe monitorizatu ahal izateko hasierako estatistika-adierazle batzuk jarri zituen. Zabalkunderako plataformaren helburu nagusien artean honako hau dago: Euskal AEn eta haren eremu geografikoetan eta interes-taldeetan garapen jasangarrirako 17 helburuen 169 xedeen betetze-mailari buruzko informazioa emango duten adierazleak etengabe sartzea.

Helmuga 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian

Adierazle 16.1.4 Bizi den eremuan oinez ibiltzean seguru sentitzen den biztanleriaren proportzioa



Bizileku-eremuan bakarrik ibiltzean seguru sentitzen diren 16 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioa (%)

	2014	2017	2018	2019
Euskal AE	76,38	76,02	63,97	69,47
Emakumeak	65,61	63,76	50,55	55,38
Gizonak	87,89	89,24	78,49	84,73
Araba / Álava	76,26	75,24	64,32	69,64
Emakumeak	66,07	62,54	53,70	56,77
Gizonak	86,77	88,48	75,54	83,24
Bizkaia	75,27	73,93	61,76	67,85
Emakumeak	65,07	60,59	48,39	53,64
Gizonak	86,36	88,55	76,51	83,53
Gipuzkoa	78,27	79,78	67,38	72,01
Emakumeak	66,31	69,51	52,70	57,62
Gizonak	90,87	90,70	82,97	87,30

2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

Hori horrela, guztira **32** adierazle lurralde historikoaren arabera banakatu dira, **6** adierazle emakume eta gizonentzat dira eta **24** adierazletan lurralde historikoaren eta sexuaren arabera banatutako serieak eskaintzen dira.

Azken horien artean, esaterako, Euskal AEn **haien bizitoki-zonan bakarrik ibiltzean seguru sentitzen diren 16 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioa** adierazlea dago. Sexuaren eta lurralde historikoaren arabera bereizketak aukera ematen du fenomenoaren zenbait ikuspegitatik ikusteko, ez bakarrik denboraren ikuspegitik. Ikusten denez, esaterako, seguru sentitzen diren pertsonen proportzioak behera egin du Euskal AEn, 2014an % 76,38tik 2019an % 69,47ra, bereziki emakumeen segurtasun-sentimenduak bilakaera negatiboa izan duelako, aztertutako aldiaren ehuneko 10 puntu egin baititu behera.

Gipuzkoako lurralde historikoan sentitzen dira bai emakumeak bai gizonak haien bizitoki-zonan bakarrik ibiltzean seguru, baina 2019an 2014an baino proportzio txikiagoan. Bizkaian eta Araban, gizonen % 83 inguru seguru sentitzen dira, eta emakumeen kopurua baxuagoa da: Araban, emakumeen % 56,77, eta, Bizkaian, % 53,64.

Helmuga 17.8 Martxan jartzea, beranduenez 2017an, teknologia-bankua eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko ahalmena sortzeko babes-mekanismoa, aurrerapen txikieneko herrialdeentzat; eta teknologia instrumentalaren erabilera areagotzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena

Adierazle 17.8.1 Internet erabiltzen duten pertsonen proportzioa

17 HELBURUAK
LORTZEKO
ALIANZA



Azken hiru hilabeteetan Internet erabili duten 16-74 urteko pertsonen proportzioa (%)

	2015	2018	2019	2020
Euskal AE	80,17	87,88	89,12	91,68
Emakumeak	77,28	86,64	88,63	92,05
Gizonak	83,13	89,19	89,63	91,31
Araba / Álava	80,88	90,51	89,19	91,07
Emakumeak	77,59	88,94	89,15	92,36
Gizonak	84,18	92,17	89,23	89,76
Bizkaia	80,19	87,45	89,70	91,35
Emakumeak	76,66	85,47	88,16	91,56
Gizonak	83,83	89,56	91,29	91,15
Gipuzkoa	79,82	87,40	88,17	92,51
Emakumeak	78,13	87,51	89,14	92,7
Gizonak	81,54	87,29	87,20	92,3

2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

Oraintsu lurralde historikoaren eta sexuaren arabera bereizi den beste adierazle bat, haren azterketak azpiko fenomenoaren bilakaera ikusteko aukera ematen duena, honako hau da: **Azken hiru hiletan Internetan erabili duten 16 eta 74 urte bitarteko pertsonen proportzioa**. 2015-2020 aldian intentsitate desberdineko bilakaera ikusten da emakumeetan; ehuneko 5 puntu gizonen azpitik zeuden 2015ean eta ehuneko puntu erdi goitik daude 2020an.

Fenomeno hori hiru lurralde historikoetan gertatu da, baina nabarmentzekoa da Arabaren kasua; bertan, azken hiru hiletan Internetan erabili duten emakumeen proportzioa gizonena baino ia ehuneko hiru puntu handiagoa da (emakumeen % 92,36 eta gizonen % 89,76).

Helmuga 8.5 2030. urterako, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea					
Adierazle 8.5.1 Pertsona enplegatuen orduko diru-sarrerak, sexuaren, adinaren eta lanbidearen arabera, eta desgaitasunen bat dutenak kontuan hartuta					
8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA 	Batez besteko diru-sarrera lanorduko (€)				
		2015	2016	2017	2018
	Guztira	18,41	18,17	18,48	18,87
	Emakumeak	16,99	16,60	17,04	17,57
	Gizonak	19,49	19,37	19,55	19,95

Sexuaren arabera bereizi den eta ikuspegi berria ematen duen adierazlearen adibide gisa, **Lan egindako orduko batez besteko diru-sarrerarena** dago; hartan ikusten denez, nahiz eta batez besteko diru-sarrerak pixka bat gora egin duen 2015aren eta 2018aren artean biztanleriarengan, oro har, pixka bat gehiago egin du emakumeen kasuan. Horrela, lan egindako orduko batez besteko diru-sarreraren aldeak behera egin du; 2,50 euro ziren 2015ean eta 2,38 euro 2018an. Jakina da adierazle horretan analisirako dimentsio berrietarako aukera ematen duten bereizketa gehiago behar direla.

Helmuga 9.5 Ikerketa zientifikoa areagotzea eta herrialde guztietako industria-sektoreen ahalmen teknologikoa hobetzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, berrikuntza sustatu behar da eta nabarmen areagotu behar da, hemendik 2030era, ikerketan eta garapenean lan egiten duten pertsonen kopurua (milioi biztanletik), baita sektore publikoek eta pribatuek ikerketan eta garapenean egiten duten gastua ere

Adierazle 9.5.1 Ikerketaren eta garapenaren alorreko gastua, BPGrekiko proportzioan

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK	Ikerketa eta garapeneko gastuak BPGrekiko proportzioan (%)			
	2015	2017	2018	2019
Euskal AE	1,86	1,85	1,85	1,86
Araba / Álava	1,48	1,37	1,35	1,23
Bizkaia	1,73	1,65	1,68	1,71
Gipuzkoa	2,25	2,39	2,35	2,40

Lurralde historikoaren arabera bereizketa Eustaten 2030 Agendaren adierazle-plataforma hedatzeko beste ardatzetako bat da. Agente eskudunek eragina izan dezakete eta izan behar dute adierazle batzuetan; beraz, lurralde-monitorizazioa funtsezkoa da. Horren adibide dugu, esaterako, **Ikerketa eta garapeneko gastuak BPGrekiko proportzioan** adierazlea; adierazle horrek aldeak erakusten ditu lurraldeen artean, bai mailan (Gipuzkoa nabarmentzen da, gastu handiagoarekin), bai 2015-2019 aldiko bilakaeran (Arabak nabarmen egin du behera, Bizkaian pixka bat behera eta, Gipuzkoan, gora). Adierazlea Euskal AEren mailan bakarrik aurkezteak, beraz, interes handiko fenomenoak ezkuta ditzake.

Sexuaren eta lurralde historikoaren arabera bereizketak sartzeaz gainera, garapen jasangarrirako 1. helburuaren (*Pobreziaren amaiera*), 8. helburuaren (*Lan duina eta hazkuntza ekonomikoa*) eta 12. helburuaren (*Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak*) lorpen-mailaren segimendu hobea egiteko aukera ematen duten estatistikako **8** adierazle berri sartu dira. Horien artean, esaterako, **Per capita sortutako hondakin arriskutsuen** adierazlea sartu da, zeinak 12. helburuari buruzko informazioa ematen baitu (*Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak*).

2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

Helmuga 12.4 2020. urterako, produktu kimikoak eta hondakin guztiak ekologikoki arrazoizkoa den moduren batean kudeatzea beren bizi-zikloan, hitzartutako nazioarteko esparruekin bat etorritik; eta nabarmen murriztea atmosferara, urera eta lurrera egiten dituzten isuriak, horiek giza osasunean eta ingurumenean dituzten eragin kaltegarriak arintze aldera

Adierazle 12.4.2 a) Per capita sortutako hondakin arriskutsuak eta b) tratatutako hondakin arriskutsuen proportzioa, tratamendu-motaren arabera banatuta



Sortutako hondakin arriskutsuak per capita (Kg)				
	2015	2016	2017	2018
Euskal AE	150,82	148,09	145,43	149,59
Araba / Álava	160,84	161,25	159,87	197,05
Bizkaia	184,19	180,35	176,85	171,21
Gipuzkoa	92,63	90,42	88,65	93,43

Ikusten denez, 2018an per capita sortutako hondakin arriskutsuek 2015eko erreferentziazko urtean izandako maila oso antzekoa dute. Hala ere, serie hori lurralde historikoen arabera bereiztean, haien arteko portaera oso desberdina dela ikusten da. Hala, Bizkaian 2015ean 184 kilo hondakin arriskutsu sortzetik 2018an 171 sortzera igaro da; Araban, aldi berean, gora egin du, 160 kilotik 197 kilora. Gipuzkoan, berriz, portaera egonkorra da, bi aldietan 90 kilotik pixka bat gora.

Informazio-oharra: Jarraitzen da [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforman](#) adierazle berriak etengabe sartzeko lanean, batetik, adierazleen bereizketak eskaintzeko, eta, bestetik, egun arte bete ez diren xedeen gaineko informazioa ematen duten adierazle berriak sartzeko. Eustatek prentsa-oharra argitaratuko du adierazleen plataforma modu esanguratsuan garatzen den bakoitzean, eta Euskal AEn garapen jasangarrirako helburuen lorpen-mailei buruzko informazioa emateko.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62